

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

XXI.mendean bizi garela aintzat harturik, gure enpresak **gizarte jasangarrian** oinarritutako hainbat zerbitzu eskaintzea du helburu, hala nola, **gizarte ekologiko** eta norbanako ekintzetan **erosotasuna** sustatuz. Hori dela eta, hamarkada honetan ikusi berri dugun beharrezana asetzea daukagu xede. Hau horrela izanda, Uribe Kostako herrietan **takilak, hozkailu solidarioa, bidegorria** eta **bizikletak** eskainiko ditugu. Ideia-produktu hauek, elkar lotuko ditugu aplikazio teknologiko baten bidez.

Herrietan takilak ipintzeari esker, Uribe Kostako turismoa sustatzea bilatzen dugu, ahaztu gabe, eskaini nahi dugun zerbitzua erosotasuna dela. Hozkailu bat herri bakoitzean ipintzeari ezin diogu muzin egin, izan ere, ezinbestekoa den beharrezan bat asetzearen nahia daukagulako, hots, ahal dugun heinean janaria alferrik botatzea ekiditu nahi dugu, eta aldi berean, jatekoa denon eskura egotea da gure helburua. Era berean, aipatu beharra dago, klima aldaketak etorkizunean eragingo dituen inpaktuak eta ondorioak jada aurreikusten ari garela, hortaz, honi aurre egiteko **jasangarritasuna** bultzatu nahi dugu, **bizikletak alokatzeko** aukera emanez, eta gure ingurua ezagutzera datozen bisitarien mailetak/motxilak gure takiletan gordez. Hauen erabilera bultzatzeko bidegorri baten beharra sumatzen dugu, horrela, kirolari eta bizitza osasuntsuari garrantzia emango genioke, baita ingurugiroa hobetzeare ere.

Laburbilduz, gure enpresak, hots, **Utopia enpresak**, **turismo jasangarri** bat bultzatzea bilatuko du eta honekin, jendeari/turistei hainbat erraztasun eskekiniko dizkiegu herria bisitatzerako orduan.

Aipatzeko datu bezala, Bizkaiko Turismo Behatokiak bildutako datuen arabera, bereziki adierazgarria izan da **Bilbon** eta **Bizkaiko kostaldean** izandako **hazkundera**; izan ere, hotel-establezimenduetako sarrerak eta gaualdiak %15,5 eta %8,3 igo dira **udan**.

Nahiz eta urtaro honetan eskualdeko klima beroena ez izan (estatu mailakoarekin alderatuz), uda urtaro ezin hobea da, Euskal Herriak eta honek ezkututzen dituen lurralde harrigarriez gozatzeko, dastatzeko eta ezagutzeko. Kostaldea eta mendia, gastronomia, historia, natura, kirola... Hamaika dira eskualde honetan egin daitezken jarduerak, eta batez ere egun hauetan.

Hau guztia kontuan izanik, udako atzerritarren gorakada eta eskualde honek eskaintzen dizkigun toki ikusgarri eta zoragarri hauek, hots, naturarekin bat datozen guneak, ematen dizkigun baliabideak aprobetxatu nahi ditugu. Horretarako, inguruko udaletxeak animatuko ditugu bidegorriak jar ditzaten eta honekin bat datozen bizikletak alokatzeko aukera emango diegu. Hori gutxi balitz, bezeroek haien maleta/motxilekin ez kargatzeko, lokal desberdinetan edukiko ditugun takiletan gordetzeko aukera izango dute. Idea proiektu honekin lortzen duguna zera da: **bezeroek Uribe Kostak eskaintzen dituen paisajeak erosotasun osoz biziartzeko aukera ematea, betiere, turismo jasangarria bultzatuz**. Honekin bat, hozkailu solidarioa ezagutaraziko dugu, behar edo nahi duenak janaria har dezan. Horrela, janari-soberakinak alferrik galtzea ekiditzen dugu, izan ere, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak berriki egindako ikerketa baten arabera, Euskadin 311.588 tona janari alferrik galtzen direla urtero ondorioztatu du. Halaber, ahal den neurrian, gosearen arriskuak arintzen laguntzea nahi dugu, ahal dugun heinean gosearekin akabatzeke.

Horretarako, badakigu gure hitzak ekintza bihurtu behar ditugula. Horregatik, helburu berri bat jarri diogu gure buruari: ahalik eta modurik onenean laguntzea: elikagaien xahuketaren eta faltaren aurkako mugimendu bat eraikitzen, klima aldaketaren aurkako neurriak hartzen, bizimodu osasuntsu bat sustatzen, kirolaren erabilera bultzatzen, eta turistei ahalik eta erosotasun egokiena eskaintzen (herrientzat turismo jasangarria sustatuz). Hortaz, azken mende honetan nabarmen diren aferaren aurka ekinez.

Honenbestez, ezinbestekotzat jotzen dugu denon laguntza eta ekimena, izan ere, denok elkartzen garenean soilik sor ditzakegu aldaketa positiboak.

Letoztat daukagu Jane Goodallex adierazi zuena, *«Ezin da egun bakar bat igaro inguratzen gaituen munduan eraginik izan gabe. Egiten dugunak desberdintasuna markatzen du, eta zer nolako aldea egin nahi dugun erabaki behar dugu»*

Amaitzeko, planetari laguntzeko nahiarekin batera norbanako jarrera zein mentalidade positiboa bultzatu nahi dugu gure egitasmoaren bidez. Gu, ekintzaile bezala definitzen gara, eta beraz, animazioa zein laguntza ere eskaintzera gatoz, etorkizunean aldaketa positiboak zein berriztagarriak eskainiz.

<p><b>ZERK BEREIZTEN GAITU?</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Naturarekiko errespetua</li> <li>- Eskuragarritasuna</li> <li>- Gaur egungo hainbat arazoei aurre egiteko nahia (klima aldaketa, janari soberakinak, ...)</li> <li>- Bizimodu osasungarria, kirola sustatuz, alegia</li> <li>- Etorkizunera begira aldaketa positiboak</li> <li>- Adin edota bestelako mugarik ezartzen ez ditugula</li> <li>- Inklusibotasuna</li> <li>- Elkarbizitza sustatzea</li> <li>- Ideia berriztagarrietan oinarritutako egitasmoa</li> <li>- Pertsonalizazioa (batez ere takilen lokaletan)</li> </ul>
<p><b>BALIO KUALITATIBOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familietarako edo talde handietarako egitasmoa</li> <li>- Naturaz gozatu</li> <li>- Jendeari bultzatu gizarte jasangarri bat izatera</li> <li>- Herriak eskaintzen dituzten baliabideei etekina atera</li> <li>- Harreman zuzena edota zeharkakoa</li> </ul>
<p><b>BALIO KUANTITATIBOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaintzen ditugun zerbitzuen prezioak bat egiten du gizarte jasangarri eta sozial baten alde</li> <li>- Gure zerbitzuetarako plaza ugari eskaintzen ditugu</li> </ul>